

CHAPLIN | ESPÍRITU GITANO / CHAPLIN | SPIRIT OF THE TRAMP

Carmen Chaplin: “Aitona harro egongo litzateke dokumentala ikusiko balu”

JULEN NAFARRATE AURREKOETXEA

Sekretu eta ezkutuko errealtate ugari azaleratzen ari dira aurtien Zinemiran. Urtetan kontatu ez diren istorioak, isildutakoak izan direnak... Pelikula honen protagonistak ez zuen arazorik ikusgarritasuna lortzeko: munduko aktorerik ezagunenetakoa zen, izarra, ikonoa. Baina sekretu bat gordezten zuen, inoiz aipatu zuena, baina gehiegi nabarmendu gabe. Charles Chaplin mitikoaz ari gara, eta bere jatorri erromania aztertu du haren biloba Carmen Chaplinek *Chaplin | espíritu gitano / Chaplin | Spirit of the tramp* dokumentalean.

Londonen jaiotako zinegileak bere lehenengo filma aurkeztuko du zuzendari moduan. Istorio pertsonala aukuratu du, aitonaarena. Eta ez edozein istorio; bere familian lotsa sortu duen gaia da, ezkutatu beharreko zerbait. Charles Chaplinek 36 urterekin jakin zuen jatorri erromania zuela, eta karabana batean jaio zela Birminghametik gertu zegoen akanpaleku batean. Ama hilzorian zegoenean kontatu zion, eta gero eskutitz bat jaso zuen jatorri



IÑAKI LUIS FAJARDO

hau baieztatuz. Aktoreak inoiz aipatu zuen, baina “aho-txikiarekin”, garai horretan erromani edota ijito izateak estigma handia zekarrelako. Agian gauzak ez dira horrenbeste aldatu.

Lotsa eta harrotasuna, biak sentitzen zituen Charles Chaplinek, modu batean edo bestean. Haren bilobak argi du: “Bere amaren sekretua zen, ez berea. Horregatik ez zuen gehiagotan esaten, ama asko maite zuelako eta babestu nahi zuelako, berari lotsa ematen ziolako. Baina Charles harro zegoen bere jatorriaz, pairatu zuen txirotasunari nolabaiteko erromantizismoa ematen ziolako”.

Charles Chaplinek familia zabalaren izan zuen, zortzi seme-alaba, lau emazte... Dokumentalean ere bere alde familiarra agertzen da, lehen aldiz plazaratu diren irudi askorekin. “Beti gustatu zait txikitako filmak ikustea, aitonaaren etxean ikusten genituen... Niretzat oso pertsonala da, baina baita zinematografikoa ere. Oona amonak grabatzen zituen beti, eta, beraz, amona film honetako kamera ere bada, modu batean”. Filmean Michael Chaplin ere agertzen da, Carmenen

aita eta Charlesen semea. Bertan ikusten da abizen hori izateak sor ditzakeen arazoak: “Jatorriak denoi eragiten digu. Baina horren ezaguna den arbasoa duzunean, argi asko kentzen dizute, eta nolabait zuki itzalean amaitzen duzu. Baina beste modu batean ere, argia ematen dizute. Gauza biak gertatzen dira, baina nik alde positiboan ikusten diot batez ere”.

Dokumentalean, familiako kideak agertzeaz gain, hainbat erreferente ezagunek parte hartzen dute. Zinemaldira etorri den Johnny Depp aktorea –*Modi, three days on the wing of madness* filma sail ofizialean aurkeztetara–, edota Emir Kusturica zuzendaria, besteak beste. Harek dokumentalean esaten duen bezala, Chaplinen filmetan nabari zen bere jatorri erromania: mugimenduetan, grabitatean...

Pelikula Zinemirako itxiera filma izango da, baina azken zalantza da... Charles Chaplin harro egongo litzateke bere jatorria dokumental batean agertuko balitz? Carmenek ez du zalantzarik: “Bai, noski”, filma maitatuko luke. Edo, erromintxelaz esanda, kamatuko luke.



Zure bizitzan dauden
energiak, orain zure
jaialdi gogokoenean

Repsol, Donostiako Zinemaldiaren
multienergia partnerra


Erregai % 100
berriztagarria


Eguzki-energia


Argindar % 100
berriztagarria